



KODE ETIKOA

Parque Tecnológico-Tecnologi Elkartegia, Saren, Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia, Saren eta Parque Científica y Tecnológico de Gipuzkoa - Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, Saren Administrazio Kontseiluek onartua

DATA: 2021eko abendua



1. HITZAURREA

Kode Etiko hau Parque Tecnológico - Teknologi Elkartegia, SA, Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia, SA eta Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa - Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, SA (aurrerantzean, Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea edo Sozietateak) sozietateen administrazio kontseiluak onartu du, 2021eko abenduan, eta hiru helburu ditu:

- a. Eusko Jaurlaritzak 2011ko maiatzaren 10ean onartutako "Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuko gobernu-kideen, goi-kargudunen, behin-behineko langileen eta gainerako zuzendaritza-kargudunen etikari eta gobernu onari buruzko kodean" ezarritakoari eustea.
- b. 2013ko maiatzaren 28an onartutako "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen Etika eta Jokabide Kodera" egokitzea.
- c. Martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoa, Zigor Kodea aldatzen duena, jasotzea eta Sozietateentzat egokitzea. Lege horrek pertsona juridikoen erantzukizun penala ezartzen du, haien ordezkariak eta administratzaileak beren izenean egindako delituengatik ez ezik, enplegatuek egindakoengatik ere, kontrol- eta prebentzio-neurriak ez dagoelako.

2. HELBURUA

Etika eta Gobernu Onaren Kodearen helburua da pertsona guztien (enplegatuen eta zuzendarien) portaerak gidatu behar dituzten printzipioak eta arauak ezartzea, beren eginkizunak eta harreman profesionalak betetzeari dagokionez, lege ezarritakotik haratagoko gardentasun- eta eraginkortasun-esparru batean.

3. APLIKAZIO EREMUA

Kode Etiko honek bere langile, zuzendari eta administrazio organoetako kide guztiak lotesten ditu, baita Sozietateetako plantillan sartuta ez dauden langile eta kolaboratzaile guztiak ere.

Administrazio Kontseiluak babesten du Kode hau, eta horretarako den **Batzorde Etikoak edo Betetze Batzordeak** gainbegiratzen du ea betetzen den. Sozietateei zerbitzuak ematen dizkieten enpresa nahiz pertsona azpikontratatuak ere bete dezatela eskatuko zaie, kontratu bidez.

Sozietateek jendaurrean zabalduko dute Kode Etiko hau, eta saiatuko dira beren hornitzaileak, azpikontratatuek eta kolaboratzaileak kodearen printzipioak beren gain har ditzaten.

SPRI Taldeko Sozietateetan Administrazio Kontseiluetako kide aritzen diren sozietateetako pertsonak, gainera, Sozietate horretako Administrazio Kontseiluaren Erregelamenduan (Kode Deontologikoa) ezarritakoa bete beharko dute.



Era berean, Taldekoak ez diren sozietateen Administrazio Kontseiluetan parte hartzen badute, dokumentu honetan jasotako printzipio eta balioen antzekoak dituzten kode etikoak har daitezela sustatuko dute.

4. ONARTZEA ETA BETETZEA

Plantillan sartzen diren langileek edo Sozietateetako kide diren pertsonak Kode hau jasoko dute eta berariaz onartuko dute.

Kode honetan jasotako jokabideak **nahitaez bete behar dituzte** langile guztiek Sozietateetan beren jarduera profesionalean aritzean, eta horiek betearazi ere egin behar dira, eta beste gizabanako batzuek ez dituztela bete salatu, hala badagokio. Kode hau **ez betetzea** indarreko araudiaren arabera **zehatu daiteke**, arau-hausleak izan ditzakeen beste erantzukizun batzuei kalterik egin gabe.

Sozietateek **Betetze Batzorde** bat dute, eta haren funtzioa da Kode Etikoa aplikatzeak eragiten dituen gorabeherak izapidetzea eta konpontzea, baita egindako salaketak bideratzea ere.

Kode hau haustea edo ez betetzea ekar dezaketen jokabideen berri duen edozein langilek modu konfidentzialean salatzeko aukera izango du, jarraian adierazi den posta elektronikoko helbidera mezua bidaliz:

cumplimiento@parke.eus

Jasotako salaketa guztiak **konfidentziasunez** tratatuko dira.

5. SOZIETATEEN PRINTZPIOAK ETA BALIOAK

Sozietateetako kide diren pertsona guztiek ulertu eta bete behar dituzte Kode honek lan ingurunean eta negozioaren esparruan jarduteko moduari buruz espero duena. Sozietateen jarduera gidatzen duten oinarritzko printzipioak honako hauek dira:

a. BALIO ETA PRINTZPIO DEMOKRATIKOEKIKO ERRESPETUA

Kode honen mende dauden pertsonak, beren jardueran, berdintasunaren, askatasunaren, justiziaren eta aniztasun politikoaren printzipioak betetzen direla zainduko dute.

Giza eskubideen eta askatasun publikoen erabateko errespetuan oinarrituko da haien jokabidea.

Ez dute bereizkeriarik eragingo jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi, sexu-joera edo beste edozein inguruabar pertsonal, politiko edo sozialengatik.

Jardueren ezaugarriak tolerantzia eta aniztasunaren sustapena izango dira. Horrek esan nahi du kultura, politika eta gizarte mota guztiak erabat errespetatu, balioetsi eta onartu behar direla, baldin eta giza eskubideak errespetatzen badituzte eta indarkeriazko bitartekoak erabiltzen ez badituzte.



b. INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA

Sozietateek, beren jarduera-eremuan, ingurumena babesten eta lurraldearen antolamendu arrazional eta jasangarria sustatzen lagunduko duten politikak sustatu eta jarduerak bultzatuko dituzte.

Zorrotz errespetatuko da ingurumen-legeria, eta prozesu eta teknika egokienak aplikatuko dira jardueraren arriskuak identifikatzeko, lotutako ingurumen-alderdiak kontrolatzeko eta minimizatzeko (hondakinak sortzea, isurketak, atmosferara egindako emisioak) eta zerbitzua emateak sor dezakeen ingurumen-erantzukizuna bere gain hartzeko.

Ingurumenarekiko konpromisoaren baldintza betez, Sozietateek nahitaez bete beharreko **Ingurumen Politika** dute Administrazio Organoetako langile, zuzendari eta kide guztientzat.

c. OSASUNAREKIKO ETA SEGURTASUNAREKIKO KONPROMISOA

Sozietateek beren jarduerarekin lotutako arriskuak behar bezala kudeatzeko eta arintzeko beharrezkoak diren jarduketa-planak ezarriko dituzte. Plan horiek aldian-aldian berrikusiko dira, eta behar diren baliabideak jarriko dira horiek mantentzeko eta hobetzeko.

Istripuak prebenitzea eta jarduera garatzean segurtasuna ziurtatzea Sozietateen jarduerarekin batera joango dira. Langileak eta kolaboratzaileak beren zereginak behar bezala garatzeko prestatuko dira, eta segurtasuna lehenetsiko da arlo guztietan. Era berean, segurtasun hori bermatzeko behar diren baliabide guztiak emango zaizkie.

Sozietateek **Laneko Arriskuen Prebentziorako Plan** bat dute, osasunarekin eta segurtasunarekin duten konpromisoa betetzeko.

d. GARDENTASUNA, OBJEKTIBOTASUNA ETA PROFESIONALITASUNA BEREN JARDUERA GUZTIEN GARAPENEAN ETA INTERES TALDEEKIKO HARREMANETAN

Sozietateek, beren langileek, kolaboratzaileek, zuzendariek eta administrazio-organoetako kideek etikan, zintzotasunean, profesionaltasunean eta gardentasunean oinarrituko dituzte beren barne-harremanak eta hirugarren pertsona batzuekiko harremanak:

Ezin dira faltsutu, ezkutatu edo simulatu kontabilitateko datuak, idazpenak eta eragiketak, ez eta kontabilitate bikoitza eraman ere, Ogasun Publikoaren edo Gizarte Segurantzaren kaltetan edozein ordainketa saihesteko edo legez kontrako onurak lortzeko.

Kontratututako eragiketak zehatz eta zorrotz kontabilizatuko dira, eta irizpide berarekin mantenduko dira eskatutako artxibo eta erregistroak. Kontabilitateaz arduratzen diren langileak behartuta daude kontabilitateko informazioa prestatzera, Sozietateen ondarearen eta finantza egoeraren irudi fidelaren arabera.

Une bakoitzean egokientzat jotzen diren barne-kontrolak eta kudeaketa-sistemak ezarriko dira, finantza-informazioaren fidagarritasuna eta erakundearen erregistroen zehaztasuna bermatzeko.

Lehia legitimoa eta zintzoa erraztuko da, eta ez zaie inola ere kalterik egingo pertsona edo erakunde lehiakideei. Edozein motatako lehia desleiala debekatuta dago, eta lehia babesteko legeak betetzen direla zainduko da aktiboki.

Hornitzaileekiko edo edozein motatako hornitzaile, kontratista edo kolaboratzaileekiko harremanak inpartzialtasunak eta objektibotasunak gidatuko dituzte, eta egokitasun-, kalitate-, efizientzia- eta kostu-irizpide zorrotzak aplikatuko dituzte.

Ezein langilek, kolaboratzailek, zuzendarik edo administrazio-organoetako kidek **ez du onartuko** bere profesionaltasunari, objektibotasunari eta/edo inpartzialtasunari eragin diezaiokeen oparirik, gonbidapenik, dohainik, zerbitzurik edo mesederik, baldin eta konpromiso bat edo mesedea itzuli beharra sortzen badu, Sozietateetan eta haien ingurunean, eta/edo iruzurra, ilegaltasuna, praktika ez-etikoak edo hirugarrenei kalte egiten badie.

Era berean, **ez zaie** oparirik, gonbidapenik, dohainik, zerbitzurik edo mesederik **eskainiko** pertsonari edo erakundeei, baldin eta pertsona edo erakunde horiek harreman komertzial edo profesionalean duten objektibotasunari eta/edo inpartzialtasunari eragin badiezaiekete, Sozietateen eremuan konpromiso bat sortzea edo mesede bat itzuli beharra badakarte, eta/edo iruzurra, ilegaltasuna, praktika ez-etikoak edo hirugarrenei kalte egitea badakarte.

Sozietateek eta haien langileek, zuzendariak eta administrazio-organoetako kideek **agintariekin**, justiziarekin, erakunde publiko arautzaileekin eta gainerako erakunde publikoekin **lankidetzan jardungo dute**, behar bezala eta arduraz, eragozpenik jarri gabe, akatsik edo omisiorik sortu gabe, eta haien lana erraztuz, eta behar den eta/edo nahitaezkoa den informazio guztia jakinaraziz.

Sozietateetako enplegatu, laguntzaile, zuzendari eta administrazio organoetako kide guztiek **kalitatez, arduraz, profesionaltasunez, gardentasunez eta zintzotasunez** egingo dute beren lana, balioa ematen saiatuz, arriskuen, gabezien eta/edo hobekuntzen berri emanez, berrituz, baliabide guztiak zentzuz eta behar bezala erabiliz, eta Sozietateen aktiboak babestuz.

Interes-gatazkak saihesteko, langileek, laguntzaileek, zuzendariak eta Sozietateetako administrazio-organoetako kideek ez dute interes ekonomikorik edo edonolako interesik izango, eta ez dute jarduerarik egingo Sozietateekin zerikusia duten enpresa edo erakundeekin. Horrelakorik gertatuz gero, zuzendaritzari jakinarazi behar zaio, beharrezko lege-aholkularitzarekin ebaluatzeko, eta, egoki iritziz gero, beharrezko neurriak hartzeko.

Debekatuta dago, pertsona batek Sozietateetan duen posizioaren kontura, bere baliabideak, ahalak, eragina edo gainerako erraztasunak erabiltzea, **bere** edo ingurune hurbilaren **onurarako**. Era berean, erabat debekatuta dago gizabanako edo erakunde batek Sozietateen izenean edo haien kontura jardutea aldez aurretik baimenik jaso gabe, baita izen hori, bitartekoak, hirugarrenekiko harremanak, posizioa edo eragina norberaren edo ingurune hurbilaren onurarako erabiltzea ere.

Beren jarduera guztien garapenean eta interes-taldeekiko harremanetan gardentasun-, objektibotasun- eta profesionaltasun-baldintzak betez, Sozietateek **Interes-gatazkak Prebenitzeko Politika** bat eta **Ustelkeriaren aurkako Politika** bat dute, enplegatu, zuzendari eta administrazio-organoetako kide guztiek nahitaez bete beharrekoa.

e. ERAGINKORTASUNA, EFIZIENTZIA ETA ERRENTAGARRITASUN SOZIALA

Sozietateetako pertsonak eraginkortasun, ekonomia eta efizientzia printzipioen arabera jardungo dute, eta, betiere, interes orokorra lortzen dela eta ezarritako helburuak betetzen direla zainduko dute.



Sozietateek bikaintasunarekiko konpromisoa bere gain hartu eta bultzatzen dute. Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren pean jarduten dute, eta bere jardueran eta zerbitzuak ematean kalitate eta bikaintasun maila gorenak lortzea izan behar dute helburu. Era berean, berrikuntza, garapena eta etengabeko hobekuntza bultzatuko dituzte, ahalik eta kalitate handiena lortzeko.

Sozietateetako pertsona guztiek beren **lankidetza, profesionaltasuna eta zerbitzu mentalitatea** eskainiko dituzte, bezeroek espero dutena ahalik eta ondoen asetzeko, eta bezeroen beharrianen ezagutzan aurretik joateko ahalegina egingo dute.

f. HAUTAKETA, SUSTAPENA ETA EBALUAZIOA

Sozietateek **hautaketa- eta sustapen-programa** zorrotzak ezarriko dituzte, gaitasun-eta lehia-irizpide objektiboetan oinarrituta. Plantilla osoak aukera berdinak izango ditu bere karrera profesionalean, betiere merezimenduaren printzipioan oinarrituta.

Sozietateek konpromisoa hartzen dute langile guztien gaikuntza egokia ziurtatzeko prestakuntza planak garatzeko, eta horietako bakoitzerako zereginak eta helburuak zehazteko.

g. INTIMITATEA, DATUEN BABESA ETA INFORMAZIO KONFIDENTZIALA

Enplegatuen eta kolaboratzaileen **intimitaterako eskubidea** errespetatuko da. Datu pertsonalen eskaera eta tratamendua Sozietateen jarduerarako eta aplikatu beharreko araudia unean-unean betetzeko ezinbestekoa den informazioa mugatuko dira.

Dituzten datu pertsonalen **konfidentzialtasuna** babesteko eta datu horien tratamendua eta datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak arlo horretan indarrean dagoen legeriaren arabera erabiltzen direla bermatzeko behar diren neurriak hartuko dituzte Sozietateek. Sozietateek hirugarrenen **jabetza intelektuala eta industrial**a babesteko konpromisoa hartu dute.

Sozietateetako langileek eskura duten informazioaren erabilera diskretu eta profesionala egingo dute, eta beren lanaren edukiari buruzko konfidentzialtasuna gordeko dute. Nolanahi ere, ez dituzte beren onurarako erabiliko beren jarduera garatzean lortutako informazioa, datuak nahiz dokumentuak.

Intimitatearen, datuen babesaren eta informazio konfidentzialaren baldintza betez, Sozietateek **Pribatutasun eta Konfidentzialtasun Politika** bat eta **Informazio Sistemen Erabilera Onargarriaren Politika** bat dute, langile, zuzendari eta Administrazio Organoetako kide guztiek nahitaez bete beharrekoa.

h. DEDIKAZIO OSOA, FEDE ONA, EREDUGARRITASUNA

Sozietateen Zuzendaritzak, bere ekintzen bidez, arauak betetzearen garrantzia erakusteko erantzukizun gehigarria du, eta balizko ez-betetzei buruzko zalantzak dituzten edo informazioa eman nahi duten pertsonen eskura izango da. Sozietateetako pertsonak dedikazio osoz beteko dituzte beren eginkizunak, une bakoitzean indarrean dagoen bateraezintasun-araubidea zintzo betez, eta beren jarduna gainerakoentzat erreferentzia izan dadin.



Sozietateek uko egiten diote jazarpen fisiko, psikologiko, moral edo agintekeriaren adierazpen orori, baita pertsonen eskubideekiko larderiazko edo irainezko ingurunea sor dezakeen beste edozein jokabideri ere.

Pertsona guztiak behartuta daude lankideak, nagusiak eta mendekoak modu bidezkoan eta errespetuzkoan tratatzera, lan ingurune atsegina, osasungarria eta segurua ahalbidetuz. Era berean, Sozietateetako eta enpresa kolaboratzaileetako pertsonen arteko harremanak errespetu profesionalean eta elkarrekiko lankidetzan oinarrituko dira.

i. AUSTERITATEA ETA ZINTZOTASUNA

Sozietateek austeritatez administratuko dituzte esleitutako baliabide publikoak, eta ez dute baliabide horien erabilera desegokirik egingo, horien kontsumoan erabilera arduratsua eginez eta baimendutako protokolo- eta ordezkartza-gastuak mugatuz.

j. PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA INTERES TALDEEKIN. GOBERNU IREKIAREN PRINTZPIOAK

Beren kudeaketak beren interes taldeetan oinarritutako ikuspegia izan dezala bermatuko dute Sozietateek; era berean, informazioaren, arretaren eta emandako zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko konpromisoa izango dute.

Beren interes-taldeek ematen dituzten zerbitzuen funtzionamenduari buruzko informazioa jasotzeko duten eskubidea baliatzen lagunduko dute, legeek ezartzen dituzten mugak aintzat hartuta, eta bere eskaera, kexa edo erreklamazioei azkar eta eraginkortasunez erantzuteko mekanismoak bermatuko dituzte.

Sozietateak harkorrak eta eskuragarriak izatea bultzatuko da, hizkuntza argia eta ulergarria erabiliz, prozedurak sinplifikatuz eta arinduz, zerbitzuak baliabide elektronikoz eskura jarri eta arauen eta erregulazioen kalitatea hobetuz.

Bere bezeroek, enplegatuek edo beste pertsona batzuek emandako datu pertsonalen babesa bermatuko dute Sozietateek, eta bere jarduera eraginkortasunez kudeatzeko beharrezkoak diren datuak besterik ez eskatzeko eta erabiltzeko konpromisoa hartuko dute.

Interes-taldeekin parte hartzea eta hitz egitea sustatuko dute, parte-hartze eta kontsulta hutsetik harago, eta beren politiken diseinuan inplikatzeko bilatuko dute, ezagutza eta berrikuntza bultzatzeko. Horretarako, eskura dauden bitarteko guztiak erabiliko dira, telematikoa barne.

k. ERANTZUKIZUNA ETA LANKIDETZA

Sozietateetako pertsonak beren gain hartuko dute beren jardueren erantzukizuna, arrazoi objektiborik gabe lankideengana eta/edo mendekoengana bideratu gabe, eta maila instituzional guztiekin lankidetzan arituko dira, egungo eskumen-esparrua errespetatuz, interes orokorrari modurik eraginkor eta efizienteenean laguntzeko.

Sozietateek sareko lana sustatuko dute, baita haien funtzionamendu egokirako interesgarriak diren lankidetz-ekitaldi eta -lanetan parte hartzea ere.



ETIKA ETA GOBERNU ONAREN KODEARI ATXIKITZEKO ADIERAZPENA

Behean sinatu duenak, 2021eko abenduan Administrazio Kontseiluak onartutako Kode Etikoaren edukiaren arabera, honako hau adierazi du:

- 1.- Goiburuan aipatutako kodearen ale bat duela.
- 2.- Irakurri eta ulertu duela Sozietateen Etika eta Gobernu Onaren Kodea, goian aipatutako datan Administrazio Kontseiluak onartutakoa.
- 3.- Kodearen eduki oso-osoarekin bat egin duela, eta bertan jasotako printzipioak eta betebeharrak betetzeko konpromisoa hartu duela.
- 4.- Bere zabalkundea eta aplikazioa errazteko konpromisoa onartu duela.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau sinatu dut(e)n,(e)koaren(e)(a)n.

Izpta.:
(*Pertsonaren izena*)

EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOA